

**MENDI ETA ESKALADA KIROLN NAFAR  
FERAKUNDEAREN KIDEAK DIREN  
KLUBEI, JARDUERAK  
ANTOLATZEAGATIK, DIRULAGUNTZAK  
EMATEKO DEIALDIAREN ARAUAK**



**DEIALDIAREN HELBURUA**

Mendi eta Eskalada Kirolen Nafar Federakundearen aurrekontuen kopurua aintzat hartuz, MEKNFren kideak diren mendi klubei jarduerak, bai lehiaketak direnak baita lehiarik gabekoak ere bai, antolatzeagatik dirulaguntza ematea helburua da, baldin eta bere kideak federatuak badaude. MEKNFren dirulaguntzak, klubek beste alde batzuetatik lor ditzaketenekin batera, jarduerak sor dezaketen defizita arintzeko gauza izan beharko dira.

Nafarroako Komunitatea ordezkatzuz, klubren antolatutako jarduera defizitarioek dirulaguntza eskura dezakete.

**KANPOAN  
UZTEAK**

- *Antolatzaileari sobera emango dien jarduerak.*
- *Federakundearen beraren jarduerak izategatik, jadanik dirulaguntzak jasotzen dituztenak.*
- *Nahiz eta jarduera defizitarioa izan, Federakundearen dirulaguntza dagoeneko jaso dutenak.*
- *Klubek ekintza arruntak. Egutegiaren txango arruntak.*

**NAHITAEZKO  
BALDINTZAK**

- Dirulaguntza jasoko duen jardueraren klub antolatzaileak, FEDMEk lizentziak direla-eta eskatzen dituen baldintzak betetzea (5 federakide gutxienez).
- Jarduerak sortu dituen gastu eta diru sarrerak aurkeztea, egiaztagiriak diren dokumentuekin batera, hau da, fakturak eta beste nolabaiteko frogagiriak, jardueraren zenbateko osoa modu argi eta zehatzan azalduz.

Aurreko baldintzak behin beteak, dirulaguntza emateko orduan hurrengo puntuak aintzak hartuko dira:

- Haurra eta gaztea mailetan (18 urte arte), mendi kirola zabaltzeko ekintzak.
- Sortu berria diren klubek eragindako jarduerak.
- Federakundeak egindako ekimenetan, klubek nola lagundu duten (lizentzien informatizazioa, Federakundearen ekintzetan federatu boluntario moduan ekarpen egitea...).
- Jardueran parte hartuko duten federatuen kopurua.

**MENDI ETA ESKALADA KIROLN NAFAR  
FERAKUNDEAREN KIDEAK DIREN  
KLUBEI, JARDUERAK  
ANTOLATZEAGATIK, DIRULAGUNTZAK  
EMATEKO DEIALDIAREN ARAUAK**



## **IZAPIDE**

Eskaerak Mendi eta Eskalada Kirolen Nafar Federakundean (Paulino Caballero, 13 -5.) aurkeztu beharko dira urriaren 30ean baino lehen, hurrengo dokumentuekin batera:

1. Jardueraren txostena; xedea, helburuak, garapena eta Nafarroan mendian aritzea hobetzeko jardueraren eragina azalduko dituen.
2. Jardueraren Emaitzen Kontua, diru sarrerak eta benetako gastuak azalduz. Egiaztatze dokumentuak (fakturak, etab.) ere aurkeztu beharko dira.
  - Dirulaguntza emateko mementuan egiten ari diren jardueren kasuetan, gastu eta diru sarreren balantzea aurkeztu beharko da eta dagozkien fakturak.
  - Urriaren 30ean burutu ez diren jardueren kasuan, gastu eta diru sarrerak bilduko dituen aurrekontua aurkeztu beharko da. Jarduerak behin buruturik benetako balantzea eta dagozkien fakturak aurkeztuko dira

Azalduko epean eskatutako dokumentazioa aurkezten ez bada, eskariak ez dira onartuko.

## **KOBRAZKEKO EPEA**

Epea behin bukatuta, Zuzendaritzako Batzordeak jarduerak aukeratuko ditu, baita dirulaguntzaren kopurua ere.

Dokumentazio osoa bada, Batzordearen erabakia hartu eta hurrengo 30 egunetan egingo da ordainketa.

Jardueraren garapena egin ez bada, egiaztatze dokumentazioa emango denetik epe berbera izango da.

## **DIRULAGUNTZAREN EZETAPENA**

Gastuak frogatzearen irregulartasunak izateagatik, edo publizitatean Federakundearen logotipoa ez agertzeagatik, MEKNFk, emandako dirulaguntza indargabetu ahal izango du

*Jardueraren publizitatean  
Federeakundearen egungo  
logotipoa izatea ezinbestekoa  
da.*

**AURREKONTUA**  
**3.000€**